

# Bizimodu bikoitza



ARITZ GALARRAGA

Santi Leone adiskideak idatzi du Terenci Moixek inguruan zuen mundua kritikatzeko zuela eta, aldi berean, haren konplizitate behar zuela: mundu literario katalana, lehen fasean, eta Espainiako farandularen mundua, bigarrenean. “Uda honetan, nerabegaroko mitoa izan nuen Moixen ipuinak irakurri ohartu naiz orduan ikusi ez nuen haren alde batez: izan zen gauza guzietan gainera, Moixek bere kultura, itogarria zelakoan, utzi zuen idazlea ere izan zen”. Haren liburu interesgarrienak katalanez idatzitakoak izan arren, *La torre dels vicis capitals* (1968), *Món mascle* (1971) edota *Terenci als USA* (1974) lanekin garaiko literatura katalana irauli arren, aski ondo ulertzen dut bere kultura –bere kulturetako bat?– utzi izana, itogarria zelakoan. Nori ez zaio pasa egun batzuetan –klaro, arazoa da egun horiek eguneroko bilakatzen hasten zaizkizunean–.

Ingeborg Bachmannek ere Vienarekin eta, oro har, Austriarekin, maitasun-gorrotoko harremana izan zuen beti, Idoia Santamariak kontatzen digu berak euskaratutako *Aldibereko* narrazio bildumaren hitzaurrean. Sorterriaz gain Parisen, Londresen, Berlinen, Zurichen bizi izan zen, luzeen Erroman, bizilekurik egonkorrena, bertan hil zen arte 1973an. Italiako hiriburuan bizitzeak askatasuna ematen zion, “bizimodu bikoitza egiteko aukera”, ze ideia iradokikorra. Merezki du esan bezala ekartzea: “Erromako nire lan-gelan sartu bezain laster, Vienan nago, ez Erroman. Bizitzeko modu nekagarri samarra da, eskizofrenikoa beharbada. Baina hobeto nago Vienan Erroman bizi naizelako hain zuzen, distantziarik gabe ez bainintzateke gai izango lan egiteko”. Hitzez hitz sinatuko nituzkeen hitzak. Eta liburu osoa da aberriari, erbesteari, hizkuntzari, identitateari buruzko hausnarketa mamitsu bat, gaurkotasunik batere galdu ez duena. Baina bizimodu bikoitzaren errebelaziotatik bakarrik, luzaz atxiki-ko dut maiteenen artean. ●



## “KALEAN ERAKUTSITAKO INDARRA EPAITEGIETARA ERAMATEKO GARAIA DA”

### EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA ETA ZALDIBAR ARGITU

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta Zaldibar Argitu plataformak iragarri dute herri akusazio bezala aurkeztuko direla Zaldibarko zabortearen hondamendia ikertzeko abiatu den auzian. “Herri konpromisoagatik eta gertaeraren larritasunagatik, herritarren ahotsak epaiketaren presentean egon behar du, interes orokorraren alde egingo duen begirada batetik”. Epaiketaren auzian dituen gastuei aurre egiteko diru-bilketa abiatuko dute. **2020/10/06**

